



Hezkuntza ikastetxeetan

MARIAREN LAGUNDIA KONPAINIAREN ORDENA

Espainiako probintzia



MARIAREN LAGUNDIAREN ESPAINIAKO IKASTETXEEN JOKABIDE-KODEA¹

¹ Mariaren Lagundia sortu zenetik, zenbait orientabide eta laguntza zehaztu ziren, eta horiek kontuan hartu behar dira misioa garatzeko orduan; 1638ko arauetan lanbide eta zerbitzu ezberdinetarako formula eta jarraibide gisa ageri dira orientabide horiek: Itzulpen berrian honela jaso dira: hauteskunde, biltzar, informazio, eskola, eraikin eta abarretan jarduteko moduak...!. Orientabide eta laguntza horiek guztiek osatzen dute jokabide-kode honen oinarria.

2017ko maiatzaren 15ean, Lestonnac-eko Santa Juanaren egunean, argitaratua

MARIAREN LAGUNDIAREN IKASTETXEEN XEDEA ETA HORI ERDIESTEKO BALIABIDEAK (1-8 zk.)	5
I. KODEAREN IZAERA ETA APLIKAZIO-EREMUA (9-12 zk.)	7
II. JOKABIDEAK (13 zk.)	9
A) Hezkuntza-erakundearen jokabideak	9
a) Bere buruarekiko (14-16 zk.).....	9
b) Elizarekiko (17. zk.).....	10
c) Gizartearekiko oro har (18-20 zk.).....	10
d) Bere hartzaileekiko (21-23 zk.)	10
e) Bere langile eta kolaboratzaileekiko (24-29 zk.)	11
f) Eginbehar horiek betearazteko arduradunak (30 zk.)	13
B) Langile eta kolaboratzaileen jokabidea erakundearekiko	13
Konpromisoa erakundearekin (31 zk.)	13
Bizitza pribatua eta interes-gatazka (32 zk.)	13
Ekitaldi publikoak (33 zk.)	14
Isilpeko informazioa (34 zk.)	14
Sarbidea dokumentaziora, datuetara eta sistema informatikoetara (35 zk.)	14
Izaera pertsonaleko datuen babesa (36 zk.)	15
Ondasunen kudeaketa (37 zk.)	15
Kapitalen zuriketa (38 zk.)	16
Instalazioak, ekipoak eta zerbitzuak erabiltzea (39. zk.)	16
C) Langile eta kolaboratzaileen jokabidea ikastetxeetako jardueraren hartzaileekiko eta gizartearekiko, oro har	17
Pertsona orekiko errespetu-harremanak (40 zk.)	17
Jarduera gardena, osokoa eta egiatia (41 zk.)	18
Harremanak ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileekin (42 zk.).....	18
Harremanak agintari eta erakunde publikoekin (43 zk.)	19

D) Harreman pertsonalak ikastetxe barnean.....	19
Konfiantza- eta askatasun-giroan lan egitea (44 zk.).....	19
Errespetuzko jokabidea (45 zk.)	20
Sekretuen berri izatea eta ezagutzera ematea (46 zk.).....	20
III. KODEA BETETZEKO NEURRIAK	21
Komunikazioa eta hedapena (47 zk.)	21
Konpromisoa (48 zk.).....	21
Betetzea (49 zk.)	21
Betetze-batzordea (50 zk.).....	21
Arau-hausteen berri ematea (51 zk.)	22
Ikuskapena (52 zk.).....	23
Berrikuspena (53 zk.).....	23
ERANSKINA: JOKABIDE-KODEAREN ARAU-HAUSTE POSIBLEAK	
EZAGUTARAZI ETA EBAZTEKO PROZEDURA (54-60 zk.).....	25



MARIAREN LAGUNDIAREN IKASTETXEEN XEDEA ETA HORI ERDIESTEKO BALIABIDEAK

1. Mariaren Lagundiaren xedea da «eskua luzatzea» gorputz apostoliko gisa: gainerakoei pertsona gisa hazten laguntzea, gizartean txertatzen laguntzea eraldatzeko konpromisoa hartuta, elkarri aitortuz Jainkoaren seme eta alabak direla, eta beraz, anai-arreba gisa biziz².
2. Lagundiak xede hau babestu eta sustatzen du Elizak Jesu Kristorengandik jasotako misioan parte hartzeko modu gisa. Humanizazio-, senidetasun-, justizia- eta salbazio-premia duten egoerei erantzuteko bidalia izan dela sentitzen du.
3. Xede horren arabera, Mariaren Lagundiko ikastetxeen izateko arrazoia da hezkuntza-proiektuaren bidez bere proposamen ebanjelizatzailea garatzea; modu aktibo eta boluntarioan parte hartzea gizartearen eraldaketan, batez ere esparru sozial, kultural eta erlijiozkoan.
4. Lagundiak, bere zuzendaritza eta ardura nagusiaren pean, kide propioak ditu bere misio-proiektua gauzatzeko, baita bertan bestelako modutan parte hartzen duten pertsonak ere, besteak beste, lan-harreman bidez edo lankidetzaz boluntario bidez.
5. Bere ebanjelizazio-proposamena egiteko funtsezkoak dira hezitzaileak eta horien jarrerak, hain zuzen ere dokumentu ezberdinetan aipatzen direnak³.

² Cf. *Abregé* II, 5, 8; *Constituciones*, I.E. Art.II (2006).

³ *La Compañía de María, un proyecto de educación* (1998), *Proyecto Educativo Compañía de María* (2010) y *Criterios y Modos de Proceder en los Colegios de la Compañía de María* (2014), recogiendo las formulaciones a este respecto de los Documentos Fundacionales.

6. Ikastetxeei buruzko azken dokumentuek zehazten dituzte ikastetxeak arautzen dituzten oinarriko printzipioak, sustatzen eta komunikatzen ahalegintzen diren baloreak eta xede hori lortzeko erabiltzen dituzten funtsezko baliabideak. Halaber, Lagundiko ikastetxeetan lan egiten duten pertsonen kolaborazio-jarraibideak ere adierazten dira dokumentu horietan, lege- edo kontratu-esparru hutsetik haraindian.
7. Jarraian zehazten diren xedapenen asmoa da, arestian aipatutako dokumentuekiko koherentzia gordeta, ikastetxeen orainaldirako jokabide-kode bat zehaztea. Lagundiaren ikastetxeetan lan egiten duten edo lanean hasten diren pertsona guztiek bete beharko dute kode hori beren funtzioak eta jarduerak egiteko orduan.
8. Jokabide-kode honek arestian aipatutako dokumentuak hartzen ditu kontuan, kodearen oinarria baitira, hain zuzen ere Lagundiak garatzen dituen askotariko jardueren asmoak eta lege- zein kontratu-betebehar aplikagarriak adierazten baitituzte.

⁴ "Jokabide-kodea" da enpresa edo erakunde baten jarreraren politika, balioak edo printzipioak berariazko moduan adierazten dituen testua, hain zuzen ere bere giza baliabideei, langile eta kolaboratzaileekiko harremanei, beren jardueraren bezero edo hartzaileei, jarduera horiek garatzen dituen gobernu eta komunitateei eta ingurumen-kudeaketari dagokienez. Horrez gain, arau guztien betearazpena egiaztatzeko organismo eta prozedurak ere zehazten ditu, baita arau-hauste posibleak zuzendu eta zigortzeko prozedurak ere (OIT).



I. KODEAREN IZAERA ETA APLIKAZIO-EREMUA

9. Kode honek ez du bertatik kanpo –bai erakunde-konpromiso bidez, bai lege bidez, bai modu boluntarioan onartutako hitzarmen bidez– existitzen ez den betebeharririk sortzen; aitzitik, horiek guztiak garatu eta zehaztu egiten ditu, betearazteko prozedura egokiak aipatuz, hala, lortu nahi den erakunde-xedea erdiesteko, eta aldi berean, zuzeneko interesa duten pertsonen eta gizartearen oro har, betebeharririk guztiak betetzen direla bermatzeko.
10. Mariaren Lagundiaren Espainiako ikastetxeetan aplikatuko da kodea, Lagundiaren titulartasuneko ikastetxeetan, eta estatutu nahiz hitzarmen partikular bidez Lagundiari atxikitako ikastetxeetan, eta bertako zuzendari, langile eta kolaboratzaile guztientzat loteslea izango da, baita ikastetxe horietan lan egiten duten Lagundiko kideentzat ere.
11. Honako hauek jarraitu beharko diote kodeari:
 - a) Zuzendaritzako kideak: zuzendaritza-ardurak betetzen dituzten Mariaren Lagundiko kideak eta gainerako pertsonak.
 - b) Langileak: lan-harreman bidez Lagundiaren ikastetxeetara atxikitako pertsonak.
 - c) Kolaboratzaileak: Lagundian lan- edo erakunde-harremanik eduki ez arren, jardueren antolakuntzan edo garapenean doan eta modu boluntarioan parte hartzen duten pertsonak.
12. Lagundiaren ikastetxeekin zerikusia duen beste edozein pertsona edo entitateri ere aplikatu ahal izango zaio kode hau (kanpo-aholkulariei, zerbitzu-emalerei edo hornitzaileei), baldin eta, beren jardueraren izaera dela-eta, betetze-batzordeak egokitzat jotzen badu⁵.

⁵ Uneoro indarrean dagoen probintzia-egituraren arabera zehaztuko da batzorde horren osaketa.

II. JOKABIDEAK

13. Oro har, Mariaren Lagundiak Espainian dituen ikastetxeek, eta bertan edonola ere lan egiten duten pertsonen erakundearen xedearekiko koherentzia gorde beharko dute jarduteko moduan, oro har, zerbitzu ematen dieten pertsonen osoko ongizatea bermatuz, eta erakundearen xedea hautsi edo aurkaratzen duen edozer saihestuz. Zehazki, jokabide hauek bete beharko dira:

A) Hezkuntza-erakundearen jokabideak

a) Bere buruarekiko

14. Lehenik eta behin, bere misioa bete beharko du; bere nortasuna babestu, gorde eta indartu beharko du, eta nortasun hori argi eta garbi azaldu beharko die bai hartzaileei, bai erakundean lan egiten duten pertsona guztiei; halaber, nortasun hori jendartean ezagutarazi beharko du, horretarako baliabide egokiak erabiliz.
15. Horrek esan nahi du, praktikan, aldian behin, xede hori betetzeko estrategia-ekintza eraginkorrak proposatu eta horiek modu iraunkorrean aplikatu behar direla. Horretarako, egin beharreko misioaren eta komunikatu nahi diren printzipioen zein balioen eredu bizia dela erakusten duen barneko nahiz kanpoko jokabidea izango du hezkuntza-komunitateak; halaber, erakundearen nortasuna eta izateko arrazoia modu koherente eta eraginkorrean transmititzen duen irudiaren bidez adieraziko dira publikoki erakundearen misioa, printzipioak zein balioak.
16. Aldian behin, modu egiaiti eta objektiboan, ikastetxeentzako eta bertan zerbitzu eman behar duten pertsonentzako oinarritzako alderdi horiek ebaluatuko dituzte ikastetxeek.

b) Elizarekiko

17. Ikastetxeek Elizarekin elkertasunean garatuko dituzte beren jarduerak, eta Elizak inguruan abian jartzen dituen plan eta ekimenetan parte hartuko dute; aldi berean, solidarioak izango dira Elizaren izaera unibertsaleko ekimenekin eta ahal duten guztia egingo dute tokiko eliza-autoritate zein -organismoekin eta esparru bereko bestelako antzeko erakundeekin harreman lagunkoiak edukitzeko.

c) Gizartearekiko oro har

18. Beren jarduerak garatuko dituzte inolako interferentzia politikorik gabe. Gobernu, aginte, erakunde eta erakunde publikoekin izaten den edozein harreman modu zilegi, etiko eta begirunetsuan egingo da.
19. Aldi berean, ikastetxeek kontuan hartu behar dute, beren izaera eta aukeren arabera, betebehar orokorra dutela kokatuta dauden ingurunearen eta testuinguruaren ongizate komuna sustatzeko.
20. Zehazki.
 1. Beren esparruan, zehatz-mehatz beteko dituzte legez dagozkien betebehar guztiak.
 2. Konpromisoa hartzen dute ingurumena errespetatu eta oro har gai honetan onartutako prozedura zein jardunbide orokorrak betetzeko. Hala dagokionean, jarraibideak eskainiko dizkiete ikastetxeko langileei eta hartzaileei ekologiari buruzko ikuspegiez, baliabideez eta jardunbide partekatuez; halaber, jarraibide horiekiko jarrera koherentea edukitzea eskatuko diete.

d) Bere hartzaileekiko

21. Lagundiaren ikastetxeen hartzaile eta onuradunak izango dira beren ahaleginek bat egiten duten guneak. Ikastetxeek ahalegina egingo dute zerbitzuetan zein kudeaketa-moduetan bikaintasun-eta kalitate-maila ezin hobea eskaintzeko.

22. Bikaintasun-maila hori esplizituki bideratu beharko da gainerakoei zerbitzu desinteresatua ematera, bereziki premia gehien duten pertsoneri.
23. Ikastetxeek gainerakoan premien inguruko sentsibilizazioa landuko dute beren hartzaileekin, hartzaileen artean solidaritate-konpromiso eraginkorra sorrarazteko, era horretan, hezkuntza-proiektuan berezkoa den proiektzio sozialaren dinamismoa hartzaileen artean txertatzeko.

e) Beren langile eta kolaboratzaileekiko

24. Pertsonetikiko tratu duin eta begirunetsua.
 - 1) Pertsonetikiko tratu duin eta begirunetsua edukitzea da oinarrizko jarduera-printzipioa, ezin uko eginezkoa, gainera; halaber, edozein jarrera iraingarri ala diskriminatzaile ere uko egingo zaio.
 - 2) Inor ezingo da diskriminatua, baztertua edo mesedetua izan bere ideologiagatik, erlijioagatik edo sinesmenengatik; etnia, arraza edo nazio jakin batekoa izateagatik; bere sexuagatik, sexu-orientazioagatik edota gaixotasun edo ezintasun fisiko edo psikikoagatik; langileen lege-ordezkarri edo sindikatu-ordezkarri izateagatik; edota, indarrean dagoen legearen arabera, autonomia-erkidego bakoitzean ofizialak diren edozein hizkuntza erabiltzeagatik, kasuan kasuko baldintzak kontuan hartuta.
25. Laneko segurtasuna eta osasuna bermatzea.
 - 1) Ikastetxeetan lan egiten duten pertsonen eta ikastetxeetako hartzaile edo onuradunen segurtasuna zein osasuna bermatzen dituzten lan-baldintzak ezarriko dira.
 - 2) Horretarako, lan-arriskuei aurrea hartu eta ingurumena babesteko araudia aplikatuko da; esparru horren inguruko jarraibideak eta prestakuntza emango dira aldi-aldi, eta instalazioen, ondasunen eta ekipoen jagoletza zein mantentzea egingo da.

26. Lan-baldintzak eta gizarte-segurantzakoak errespetatzea.
- 1) Uneoro, legeek xedatutako lan-baldintzak eta gizarte-segurantzako baldintzak beteko dira, baita sinatutako hitzarmen kolektibo zein kontratuak, eta horien bidez langileek aitortuta dituzten eskubideak ere.
 - 2) Barneko kontratazio- eta sustapen-politikek merezimendu, gaitasun eta kalitate profesionala hartuko dituzte oinarritzat, baita langileek erakundearen proposamenarekin edo ikastetxeen idearioarekin duten sintonia pertsonala ere.
 - 3) Aukera-berdintasunaz gain, langileen eta kolaboratzaileen osoko garapena bermatuko da, bai alderdi profesionalean bai alderdi pertsonalean ere. Horretarako, beren lana betetzeko prestakuntza eta beharrezko tresnak eskainiko zaizkie.
 - 4) Ikastetxeek beren langile eta kolaboratzaileei ezagutaraziko dizkiete beren misioa zehazten duten oinarritzko dokumentuak. Horietara ohitzen lagunduko diete baita bertako edukiak bereganatzen ere, hain zuzen ere aldian behineko prestakuntza eta hausnarketekin, era horretan, langileei eta kolaboratzaileei beren funtzioak hobeto betetzen laguntzeko, eta beren jarduteko modua zuzendu behar duen proiektua barneratzeko.
27. Askatasun sindikala bermatzea. Langile guztiei, salbuespenik gabe, bermatuko zaie, elkartzeko sindikatzeko eta negoziazio kolektiboan egiteko eskubidea.
28. Familia-bizitza sustatzea. Langileen eta kolaboratzaileen lana eta familia-bizitza uztartzea sustatuko dute ikastetxeek. Ahal den heinean, beharrezko bideak ezarriko dira beren kargura adingabeak edota ezintasunen edo gaixotasun larriren bat duten senideak dituzten langileei zein kolaboratzaileei beharrezko laguntza errazteko (ordutegiak, jaiegunak, lanaldi-laburtzea edo antzeko beste edozein neurri).
29. Beste jarduera eta elkarteetan parte hartzea.
- 1) Langileek eta kolaboratzaileek edozein aktibitate ez-profesionaletan parte hartzeko daukaten eskubidea errespetatuko da, baldin eta ez badu eragozpenik sortzen beren



funtzioak betetzeko orduan, edota erakundearen irudi publikoa kaltetzen ez bada.

- 2) Halaber, elkarrekin, alderdi politikoetan edota bestelako erakunde ekonomiko, sozial eta kulturaletan parte hartzeko eskubidea aitortuko zaie langileei zein kolaboratzaileei, baldin eta jarduera horrek ez badu oztopatzen ikastetxean egin beharreko lana.

f) Eginbehar horiek betearazteko arduradunak

30. Eginbehar horiek betearazteko arduradunak izango dira Mariaren Lagundia, ikastetxeetako zuzendariak, eta dagokien esparruan, baita bertan lan egin edo kolaboratzen duten pertsonak ere.

B) Erakundearen langileak eta kolaboratzaileak

31. **Konpromisoa erakundearekin.** Mariaren Lagundiaren ikastetxeetan lan egiten eta kolaboratzen duten pertsonak, bertan garatzen den misio apostolikoaren eta funtzio sozialaren garrantzia kontuan hartuta, erakundearekin konprometituta sentitu behar dira. Transmittitu nahi dituzten balio zein idealekiko –hain zuzen ere hezkuntza-proiektuan adierazitakoak– jarrera koherentea edukiko dute beti, eta horiek gauzatzeko printzipio eta baliabideak errespetatuko dituzte.

- 1) Ikastetxeetan lan egin edo kolaboratzen duten pertsona guztiek jokabide zuzen, zintzo eta akatsgabea edukiko dute zuzendariekin, lankideekin, manukoekin eta misioaren hartzaile eta onuradunekin; eta horien guztien ospea kaltetu dezakeen edozein jarrera saihestuko dute.
- 2) Horrez gain, beren garapen pertsonala eta gaikuntza profesionala bultzatu behar dituzte, esparru guztietan osoko hezkuntza-bikaintasuna sustatu eta erakundeari, lankideei zein hartzaileei zerbitzu hobea emateko, baita Elizari eta gizarteari ere.

32. Bizitza pribatua eta interes-gatazka

- 1) Mariaren Lagundiak pertsonen bizitza pribatua errespetatzen du, eta, horregatik, baita beren erabakien esparru pribatua ere.

Hala ere, ezin da ahaztu, beren bizitzan, pertsona horiek jarduten eta ordezkatzeko erakundearen idearioarekin eta berezko nortasunarekin koherentzia edukitzea desiragarria eta beharrezkoa dela, bereziki erantzukizuneko karguak dituzten pertsonen kasuan.

- 2) Langileek ezingo dute erakundearekin zerikusirik ez duten jarduera profesionalik egin, baldin eta erakundearen jarduerarekin zuzeneko lehia sortzen bada. Salbuetsita egongo dira baimen berezia duten jarduerak.
33. **Ekitaldi publikoak.** Lagundiaren ikastetxeetan lan egin edo kolaboratzen duten pertsonak haren izenean hitzaldi, jardunaldi edo difusio publikoa eduki dezakeen edozein ekitalditan parte hartzen badute, bereziki komunikabideen aurrean, arreta berezia eduki beharko dute beren jarrera eta adierazpenetan, ordezkatzeko duten erakundearen izaera eta irudia ez kaltetzeko.
34. **Isilpeko informazioa.**
- 1) Mariaren Lagundiaren ikastetxeetako langile edo kolaboratzaile guztiek hezkuntza-esparruko kode deontologikoak zehaztutako isiltasuna gorde beharko dute. Horretarako, ezingo dituzte edonola ere beren onurarako erabili edo komunikatu honako hauek: datuak, dokumentuak edo isilpeko ala izaera estrategikoko informazioa, hain zuzen ere erakundearen beren lana egitean eskuratutakoak.
 - 2) Ikastetxean lan egiten amaitu ondoren ere, isiltasuna gordetzeko betebeharrak iraun egingo du. Ikastetxean lan egiteari uztean, isilpeko edozein material itzuli beharko du langileak edo kolaboratzaileak.
35. **Sarbidea dokumentaziora, datuetara eta sistema informatikoetara.**
- 1) Ikastetxean lan egin eta kolaboratzen duten langileek ez dute eskubiderik izango beren funtzioetatik at dagoen informazioa atzitzeko, baldin eta zuzendaria edo pertsona baimendua ez bada. Langileek ezingo dute ikastetxeko dokumentuen edo fitxategi informatikoen kopiarik egin, lan-arrazoiak direla-eta beharrezkoak ez badira salbu.

- 2) Langile batek edozein unetan beste langile bat ordezkatu ahal izateko moduan eduki beharko dira datu eta fitxategi informatiko guztiak. Beraz, fitxategiak osorik, ordenatuta eta modu argi, egoki zein zehatzean idatzita egon beharko dira.
- 3) Debekatuta dago, edozein baliabide edo prozedura erabiliz, sistema bateko edo bertako atal bateko datu edo programa informatikoak baimenik gabe erabiltzea; edo sistema zein programa informatiko horren barnean egotea, pertsona hori hortik kanpo uzteko legezko eskubidea duen pertsonaren borondatearen kontra.
- 4) Lantokian erabilitako dokumentuak eta datuak gordetzeko gailuak ezingo dituzte baimenik gabeko pertsonak erabili; eta beraz, horretarako ezarritako segurtasun-neurriekin gordeko dira. Ordenagailuak pasahitz bidez babestuko dira, eta pasahitzak maiz aldatu beharko dira.

36. Izaera pertsonaleko datuen babesa.

- 1) Izaera pertsonaleko datuek babes berezia jaso behar dute. Horregatik, datu pertsonalen babeseko legeria zorrotz beteko da.
- 2) Erabat debekatuta dago, baimenik gabe eta hirugarrenak kaltetzeko, fitxategi edo euskarri informatiko, elektronikoko edo telematikoen erregistratutako izaera pertsonal edo familia-izaerako isilpeko datuak eskuratu, erabili edo aldatzea, baita edozein bide erabiliz horiek atzitu, aldatu edo datuen titularrari edo hirugarren bati kalte egiteko erabiltzea ere.

37. Ondasunen kudeaketa.

- 1) Ikastetxeetako zuzendari eta arduradunek ardura eta zintzotasun handiarekin kudeatu beharko dituzte behin-behineko ondasunak, ez ondasun horiek beren iritzira erabil ditzaketen jabe gisa, baizik eta mandatari gisa, hain zuzen ere Elizaren eta Lagundiaren legeen arabera, beren zaintzapean jarritako ondasunak kudeatzeko betebeharrekin.
- 2) Halaber, ikastetxeetako zuzendari eta arduradun guztiek ardura handiz jagon beharko dute ondasunak kudeatzeko orduan, eta,

bereziki, kapital-inbertsioak egiteko orduan, kalitate etikoa zein justizia soziala bermatu eta azken hori sustatzeko beharrezko ardua egon dadin.

- 3) Ikastetxeetako kudeatzaileek zehatz-mehatz beteko dituzte kontabilitate-betebeharrak. Debeekatuta dago jarduera eta ekitaldi ekonomiko bererako kontabilitate ezberdinak edukitzea, hain zuzen ere ikastetxearen benetako egoera ezkutatu edo simulatzeko; halaber, debeekatuta dago derrigorrezko liburuetan egintza edo eragiketak, eta, oro har, transakzio ekonomikoak, ez idaztea, ala bertan benetakoak ez diren zifrak idaztea. Azkenik, debeekatuta dago derrigorrezko liburuetan idatz-ohar faltsuak egitea.
- 4) Kontabilitate-erregistro guztiak eskuragarri egongo dira barne eta kanpoko kontu-ikuskatzaileentzat.

38. Kapitalen zuriketa.

- 1) Debeekatuta dago ondasunak erosi, eduki, erabili, bihurtu edo eskualdatzea, baldin eta horien jatorrian delitu-jarduera bat badago; halaber, debeekatuta dago ondasun horien legez kontrako jatorria ezkutatu edo estaltzeko egintzarik egitea, edota arau-haustean parte hartu duen pertsonari bere egintzen lege-ondorioak saihesten laguntzea.
- 2) Horrez gain, debeekatuta dago ondasunen benetako izaera, jatorria, kokapena, xedea, mugimendua edo horien gaineko eskubide zein jabetza ezkutatu edo estaltzea, ondasun horiek legez kontrako jarduera baten ondorioz edo legez kontrako jarduera batean parte hartzeagatik lortu direla jakinda.

39. Instalazioak, ekipoak eta zerbitzuak erabiltzea.

- 1) Lagundiaren xedeak betetzeko erabili behar dira erakunde horren ikastetxeetako ondasunak. Beraz, jatorrian esleitutako funtzioak betetzeko bakarrik erabiliko dira ikastetxeetako instalazioak, ekipoak eta zerbitzuak. Langile edo kolaboratzaileek ezingo dituzte horiek helburu pertsonaletarako erabili, baldin eta dagokion nagusiak berariazko baimenik eman ez badu.

- 2) Ekipo informatikoei dagokienez, debekatuta dago birusak sortu edo transmititzea, softwarea modu ilegalean kopiazea, egile-eskubideak dituzten edukiak deskargatzea edo helburu politiko zein komertzialak dituzten mezu elektronikoak bidaltzea.
- 3) Baliabide informatikoei dagokienez, horien neurrizko erabilera pertsonala egiten utziko da, eta erabilera hori erakundearen kontrolpean egongo da.
- 4) Ikastetxeetan lan egin edo kolaboratu duten pertsona guztiek, erakundearekin duten harremana etetea, beren lanarekin edo kolaborazioarekin zerikusia duen edozein ekipo edo material itzuli beharko dute; halaber, konpromisoa hartu beharko dute erakundeko posta elektronikoa edo sinadura digitala ez erabiltzeko, horretarako baimen berezia badute salbu.

C) Langile eta kolaboratzaileen jokabidea ikastetxeetako jardueraren hartzaileekiko eta gizartearekiko, oro har

40. Pertsona ororekiko errespetu-harremanak.

- 1) Jokabide-kode honen mendeko pertsonak, harremanak edukitzeko orduan, errespetu-, zintzotasun-, duintasun- eta justizia-irizpideak bete beharko dituzte. Ezingo dute inolako indarkeria, mehatxu, etsaitasun, umilazio, jazarpen edo abusurik egin, ez sexu-esparruan ez esparru pertsonalean. Horrez gain, ezingo dute ideologia, erlijioa edo sinesmenak, etnia, arraza edo nazio, sexu, sexu-orientabide, edo gaixotasun ala ezintasun fisiko edo psikikoa direla-eta diskriminaziorik egin.
- 2) Bereziki babestu beharko da adingabekoen duintasuna, babestu eta zaindu egin behar baitira edozein indarkeria, mehatxu, etsaitasun, umilazio, jazarpen edo abusu-jokabideren aurrean, bai sexu-esparruan bai eskola-esparruan (bullying).
- 3) Horrez gain, ezingo da adingabeekin harremanetan jarri Internet, telefonoa edo informazio zein komunikaziorako bestelako teknologiarik erabiliz, hain zuzen ere horiekin sexu-helburuetarako hitzorduak proposatu edo adosteko (on-line grooming).

41. **Jarduera gardena, osokoa eta egiatia.**

- 1) Mariaren Lagundian lan egin edo kolaboratzen duten pertsona guztiek modu osoko, egiati eta gardenean izango dituzte harremanak edozein pertsona fisiko edo juridikorekin. Egiazio informazio argi eta sinesgarria eman beharko dute beti, eta hirugarrenak kaltetu ditzakeen jokabide iruzurti eta faltsuak ekidin.
- 2) Halaber, jokabide hauek ere saihestuko dira: dokumentuak edo kontratuak aldatu edo simulatzea; pertsonak benetan parte hartu ez duten ekitaldietan horiek faltsutu edo ordezte, edota ekitaldi horietan parte hartutako pertsonari benetan egindako adierazpenak ez diren bestelako hitzak egotea; eta egintzak azaltzean, egia ez esatea.
- 3) Besteren jabetza intelektuala dela-eta sortzen diren obligazioak beteko dira.
- 4) Ikastetxeari buruzko informazioa bildu eta hori eliza-autoritateei eta organismoei helarazteko edota iragarki publikoetan islatzeko ardura duten pertsona guztiek informazio hori dagokion momentuan adierazi beharko dute, oso-osorik, modu egiati, ireki, zehatz eta ulergarrian.

42. **Harremanak ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileekin.**

- 1) Lagundiaren ikastetxeekin lan egin eta kolaboratzen duten pertsona guztiek legezko eta osoko moduan, eta etikoki edukiko dituzte harremanak ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileekin.
- 2) Objektibotasun- eta gardentasun-irizpideen arabera hautatuko dira hornitzaileak, betiere kontuan hartuta komeni dela horniduran ahalik eta baldintza onenak lortzea eta aldi berean hornitzaile etiko eta arduratsuekin harreman egonkorak edukitzea. Harreman edo interes pertsonalek ezingo dute inola ere eraginik izan kontratu baten esleipenean.
- 3) Ikastetxeetan lan egin edo kolaboratzen duten pertsonetako inork ezingo du, ez zuzenean, ez bitartekari baten bidez, zuzenean ala zeharka opari, mesede, onura, abantaila edo konpentsaziorik eskatu ala onartu, ez eskudirutan, ez jenerotan,



horien izaera edozein dela ere, baldin eta horiek beren kargua dela-eta bete beharreko funtzioak gauzatzean, erabakiak hartzeko prozesuan eraginik eduki badezakete. Debeku horretatik kanpo geratuko dira ohiko opari sinbolikoak, hain zuzen ere berezko balio oso apala dutenak edota publizitate- edo promozio-material diren opariak.

- 4) Arduradun, langile edo kolaboratzaile bati horrelako eskaintzarik egiten bazaio, hark nagusiari lehenbailehen jakinarazi beharko dio gertatutakoa.
 - 5) Kode honetan xedatutakoa urratuz jasotako edozein opari berehala itzuli beharko da, eta nagusiari edo zuzeneko arduradunari jakinaraziko zaio gertatutakoa. Oparia itzultzea zentzuzkoa ez bada, ikastetxeko nagusiari edo arduradunari entregatuko zaio, eta interes sozialeko xedeetarako erabiliko du azken horrek.
43. **Harremanak agintari eta organismo publikoekin.** Administrazio publikoekiko harremanetan, ikastetxeetan lan egin eta kolaboratzen duten pertsonak ezingo dute modu bidegabean eraginik izan autoritate edo funtzionario publikoengan ala funtzio publikoa betetzeko prozesuan parte hartzen duten pertsonengan, hain zuzen ere erakundearen aldeko erabakiak har ditzaten.

D) Harreman pertsonalak ikastetxe barnean

44. Konfiantza- eta askatasun-giroan lan egitea.

- 1) Langile eta kolaboratzaile guztiek ahalegina egingo dute ikastetxean lan-giro atsegina eta sustagarria sortzeko, bertan norberaren meritua aitortzeko eta elkarrekiko errespetua, ideia-trukea, berdintasuna, laguntasuna eta adiskidetasuna sustatzeko, betiere Juana de Lestonnac-en esaldia lema gisa hartuta: «gorde zuen arteko adiskidetasuna»; hala, proiektu komuna garatzen laguntzeko.
- 2) Beraz, edozein indarkeria, mehatxu, etsakeria, umiliazio edota jazarpen edo abusu-mota ekidingo da, bai lan-esparruan bai sexu-esparruan. Halaber, arreta berezia eman beharko zaio ezintasunen bat duten pertsonen lan-integrazioari.

45. Errespetuzko jokabidea.

- 1) Ongi jantzita joan behar da lanera, gure lanbideari zor zaion begirunearen araberako arauak betez, bai norberarekiko errespetuagatik, bai ordezkatzan dugun erakundearekiko errespetuagatik.
- 2) Pertsonen arteko harremanetan edozein errespetu-falta, hitz zakar edo errespetugabe saihestu beharko da, baita beldurtzeko ahots-tonua, mespretxuzko tratua edo gutxiespena erabiltzea, judizio pertsonalak egitea, edota lankide bati ikasleen, beste lankideen edo familien aurrean ezer aurpegiratu edo gaitzestea ere.
- 3) Onartezinak dira hezkuntza-erkidegoko edozein kideri buruzko testigantza faltsuak, hain zuzen ere bere ohore pertsonala edota profesionala ahultzen badute.
- 4) Debekatuta dago ikastetxean drogak landu, salerosi edo kontsumitzea; halaber, debekatuta dago alkoholaren edo drogen eraginpean lanera joatea.
- 5) Debekatuta dago ikastetxean edozein motako material pornografikoa sartu, saldu, erakutsi, eskaini, erraztu edo edukitzea.

46. Sekretuen berri izatea eta ezagutzera ematea.

Debekatuta dago, inplikaturako pertsonaren baimenik gabe, beraren edozein dokumentuz, posta elektronikoko mezuz, gauza pertsonalez eta abarrez jabetzea, baita elkarriketak antzeman edo entzuketak egitea edota soinua ala irudiak transmititu, grabatu eta erreproduzitzea ere, hain zuzen ere pertsona horren sekretuen berri izateko, horien berri emateko edo bere intimitatea kaltetzeko.

III. KODEA BETETZEKO NEURRIAK

47. **Komunikazioa eta hedapena.** Mariaren Lagundiaren Espainiako ikastetxe guztietan lan egin eta kolaboratzen duten pertsona guztiei helaraziko zaie kode hau; ikastetxe guztietako webguneetan argitaratuta egongo da eta horri buruzko komunikazio, prestakuntza zein sentsibilizazio-jarduera egokiak egingo dira, kode hau behar bezala ezagutu eta aplikatu dadin.
48. **Konpromisoa.** Kode honen mendeko pertsonak adierazpen bat sinatuko dute, kodearen ale bat jaso dutela, horren edukia ulertzen dutela eta hori betetzeko ados daudela esanez.
49. **Betetzea**
- 1) Lagundiaren ikastetxeetako langileen kontratu-obligazioetako ezinbesteko atala da kode honetako xedapenak betetzea. Kode honetan zehaztutako arauak eta jokabide-jardunbideak ez betetzeak, sor ditzakeen bestelako erantzukizun administratibo edo penalak eragotzi gabe, diziplina-zigorrek ezartzea ekar dezake, hain zuzen ere lan-legerian xedatutakoaren arabera.
 - 2) Inork ezingo dio eskatu kode hau aplikagarria zaion inori bertan xedatutakoa urratzeko.
50. **Betetze-batzordea**
- 1) Kode hau betetzen dela bermatzeko, betetze-batzorde bat egongo da, Espainiako probintzia-ordezkaritzaren mendekoa. Batzorde horren osaketa uneoro zehaztuko da indarrean dauden probintzia-egituren arabera.
 - 2) Betetze-batzordearen funtzioak izango dira hauek:
 - Jasotako kontsulta, kexa edo komunikazioak aztertu eta horiei erantzuna ematea.

- Dagozkion salaketak izapidetzea, eta, beharrezkoa bada, beharrezko neurri zuzentzaileak hartzeko eskatzea probintzialaren ordezkariari.
 - Jokabide-kodea betetzen dela bermatzeko ikuskaritzak eta ebaluazioak agintzea, eta urteko txostena osatzea, gero probintzialari aurkezteko.
 - Komunikazio, prestakuntza eta sentsibilizazio-jarduera egokiak sustatzea Lagundiaren Espainiako ikastetxe guztietan jokabide-kodea behar bezala uler eta aplikatu dadin.
 - Probintzialari proposatzea jokabide-kodean dagozkion aldaketak egitea, era horretan, kodea egoera eta konpromiso berrietara etengabe egokitzeko.
- 1) Batzorde horrek bere ekimenez jardun ahal izango du, edo bestela Lagundiaren ikastetxeetan lan egiten duen edozein pertsonak edo Lagundiarekin zerikusia duen edonork eskatuta ala jakinarazita.
 - 2) Horretarako, batzordeari jakinarazpenak helarazi ahal izango zaizkio bide hauetako edozein erabiliz:

Posta arrunt bidez: Probintziako egoitzaren helbidea.

Posta elektronikoa bidez: Ikastetxeetako ordezkaria.

51. Arau-hausteen berri ematea.

- 1) Lagundiko ikastetxeen eta horiekin zerikusia duten pertsonen ongizatea sustatzeko, kode hau aplikatzen zaien pertsonen ikastetxeko titularrari edo zuzendariari, edo nahiago badute, betetze-batzordeari jakinarazi ahal izango dizkiete ezagutu ahal izan dituzten kode honen aurkako jarduerak, bereziki nahitaez bete beharrekoak diren lege edo arau-hausteak izan badaitezke edo inor kaltetu badezakete.
- 2) Kode honen xedapenen aurkako jarduerak erasandakotzat jotzen diren pertsonen erakundeko titularrari, ikastetxeko zuzendariari edo betetze-batzordeari jakinarazi ahal izango dizkiote beren ustez kaltegarriak diren egintzak.
- 3) Informatzaileei buruzko isiltasun- eta sekretu-betebeharrak babestuko ditu arau-hauste posibleei buruz egiten diren jakinarazpenak.

52. **Ikuskapena.** Edonola ere, mendeko langileen jarduerak maiz egiaztatzeko ekimena beren gain hartu beharko dute ikastetxeetako zuzendariak eta arduradunek.
53. **Berrikuspena.** Kodea behar bezainbestetan berrikusiko da, etorkizuneko lege-aldaketetara eta Lagundiak izan ditzakeen egoera eta konpromiso berrietara egokitzeko.

ERANSKINA
JOKABIDE-KODEAREN ARAU-HAUSTE
POSIBLEAK EZAGUTARAZI ETA EBAZTEKO
PROZEDURA

54. Langile eta kolaboratzaileek kode honen inguruan egin ditzaketen urratze posibleei buruzko jakinarazpenak –betiere egilea behar bezala identifikatuta– ahoz edo idatziz egin behar izango zaizkio ikastetxeko titularrari, edo idatziz, betetze-batzordeari. Jakinarazpena zuzenean edo betetze-batzordearen bidez jaso ondoren, titullarrak egokitzat jotzen dituen kautelazko neurriak hartuko ditu, eta horien berri emango dio batzordeari. Halaber, ahalik eta epe laburrenean, egindako guztiaren berri emango dio.
- 55.
- 1) Betetze-batzordearen ustez, egintzetan jokabide-kodearen xedapenetako bat urratu delako susmorik badago, hamabost eguneko epean, instrukzio erreserbatu bat jarriko du abian, gertatutakoa ikertu eta egiaztatzeko. Horretarako, beharrezko informazio, testigantza edo iritzi guztiak bildu ahal izango ditu. Ikerketa eta egiaztapen-jarduerek eragindako pertsonen isiltasun, diskrezio eta laguntza-emate betebeharrak dituzte. Pertsona horien kaltegabatasuna bermatuta egongo da, baita arau-haustearen berri eman duten pertsonena ere.
 - 2) Betetze-batzordeak auzia largetsi edo artxibatzea erabakitzen badu, espedientean ageri den informazio erreserbatu guztia deuseztatu beharko da.
56. Kasu bakoitzaren baldintzen arabera, jarduera horiek egokiak eta proportzionalak izango dira beti, eta horiek egiteko orduan, erabateko independentziarekin jardungo da, eta egina jaso duen edozein pertsonaren entzuteko eskubidea eta errugabetasun-presuntzioa errespetatuko direla bermatuko da.

57.

- 1) Egindako jarduerak aztertu ondoren, instrukzio erreserbatua amaitu eta hamar eguneko epean gehienez, betetze-batzordeak probintzialeko ordezkariari proposatuko dio dagozkion neurriak hartzea: lan-esparruko ez-betetzeak edo arau-haustea esparru horretako arauak xedatutakoaren arabera zigortuko dira, betiere sor daitezkeen erantzukizun administratibo edo penalak eragotzi gabe. Horrelakorik badago, autoritate administratibo edo judizial eskudunei jakinarazi beharko zaizkio lehenbailehen.
- 2) Kolaboratzaileek egindako arau-hausteen kasuan, egintzen larritasunaren eta maiztasunaren arabera, ohartarazpenik egin behar den edo lankidetzari amaiera jarri behar zaion erabakiko du betetze-batzordeak, betiere sor daitezkeen erantzukizun administratibo edo penalak eragotzi gabe. Horrelakorik badago, autoritate administratibo edo judizial eskudunei jakinarazi beharko zaizkio lehenbailehen.

58. Erantzukizun administratibo edo penalik badago, egintzen ikerketa egiteko laguntza emango da, prozeduran zehar, gertatutakoa argitzeko frogak emanez; arau-haustea edo delituak sortutako kaltea lehenbailehen ordaindu edo murriztuko da, eta neurri eraginkorrak ezarriko dira etorkizunean Lagundiaren Espainiako edozein ikastetxeren ardurapean edo bertako balia bideekin egin daitezkeen arau-hausteei aurrea hartu eta horiek antzemateko.

59.

- 1) Kodea zuzendariren batek urratu badu, jakinarazpena idatziz egin beharko zaio probintzialeko ordezkariari edo betetze-batzordeari. Jakinarazpena jaso ondoren, probintzialeko ordezkariak egokitzat jotzen dituen kautelazko neurriak hartuko ditu, eta horien berri emango dio betetze-batzordeari. Halaber, ahalik eta epe laburrenean, egindako guztiaren berri emango dio.
- 2) Egintzek kodea nolabait urratu dutela susmatzen bada, ahalik eta epe laburrenean, betetze-batzordeak instrukzio erreserbatu bat jarriko du abian, gertatutakoa ikertu eta egiaztatzeko. Horretarako, beharrezko informazio, testigantza edo iritzi guztiak bildu ahal izango ditu.



- 3) Betetze-batzordeak auzia largetsi edo artxibatzea erabakitzen badu, espedientean ageri den informazio erreserbatu guztia deuseztatu beharko da. Bestela, eranskin honetan zehaztutako epe eta baldintzetan egindako jarduerak aztertu ondoren, probintzialeko ordezkariari proposatuko dio dagozkion neurriak hartu edo zigorrak ezartzeko.
 - 4) Probintzialeko ordezkariak hartutako erabakiaren aurka errekurtsoa aurkez daiteke Lagundiaren probintzialaren aurrean.
60. Pertsona fisikoren bat delitu baten biktima izan bada, sortutako kaltea ordaindu edo murrizteko egokitzat jotzen diren neurriak lehenbailehen ezartzeaz gain, beharrezko laguntza emango zaio sortu zaizkion edozein ondorio gainditzeko.

